

**Ebazpena: R016/2023**

**Espedientea: 41/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita ISATISL zergapekoak 2009-2011 urteetan egindako lan pertsonalaren atxikipen jakin batzuk ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 41/2015 espediente-zenbakiarekin.

### **I. AURREKARIAK**

**1.-** ISATISL sozietateak zerga-egoitza Araban du, eta lurralde erkidean bizi diren enplegatuak ditu jarduera EAetik kanpo garatzeko, baina lan pertsonalagatiko atxikipen guztiak Arabako Foru Aldundiari ordaindu dizkio.

**2.-** ZAEAk egiaztapen- eta ikerketa-jarduketa bat egin du, eta, horren amaieran, A09 txostena egin du, eskumenik ez duen administrazioari ordaintzeari buruzkoa.

Txosten horretan ondorioztatzen denez, zenbait langilek lurralde erkidean bakarrik eman dituzte zerbitzuak, eta horien atxikipenak AFari ordaindu zaizkio.

**3.-** 2013ko maiatzaren 2an, AFAk aipatu den txostena jaso zuen. Bertan, ZAEAk 9.064,68 euro bidaltzea eskatu zion 2009agatik, 32.611,09 euro 2010agatik eta 73.604,05 euro 2011gatik.

Erantzunik jaso ez zuenez, 2015eko urtarrilaren 22an berriro egin zuen bidaltzeko eskaera.

**4.-** 2014ko urriaren 6an, AFAk onartu zuen 2010agatik 11.715,33 euro eta 2011gatik 3.385,68 euro bidaltzea.

**5.-** Zenbateko horiek ordaindu zirela eta, ZAEAk errekerimendu bat egin zuen 2015eko apirilaren 17an, eta hala, diru-bidalketak erreklamatutakoak baino txikiagoak izatearen arrazoia adierazteko eskatu zuen.

**6.-** 2015eko apirilaren 22an, AFAk erantzun zuen gainerako atxikipenak Arabako Lurralde Historikoan nahiz atzerrian lan egin duten langileenak direla, eta, beraz, AFari ondo ordainduta daudela.

**7.-** 2015eko ekainaren 22an, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zuen, eta AFAk 2015eko uztailaren 22an erantzun zion, eskumena berea zela berretsiz.

**8.-** 2015eko abuztuaren 19an, ZAEAk Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen gatazka, zeina 41/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita.

**9.-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta hilabeteko epean hasierako alegazioak eta azken alegazioak egiteko izapideak eskaini dira, hurrenez hurren.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuari aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.*

*b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

### 2.- Aplikatu beharreko arauak

*Ratione temporis* aplikatu beharreko araudia Ekonomia Itunaren 7. artikulua da, 12/2002 Legeak emandako idazkeraren arabera.

*Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:*

*a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.*

*Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta EAEn egiten direnean, zerbitzuak EAEn egin direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.*

10/2017 Legeak honako idazkera hau sartu zuen, 2017ko abenduaren 30etik aurrerako ondorioekin:

*Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:*

*a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.*

*Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta EAEn egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da ezen, langilea atxikita dagoen lantokia zer lurraldetan dagoen, han egin direla lanak eta zerbitzuak.*

*Telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea atxikita dagoen lantokian egin direla.*

### 3.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Enpresaren ordezkariaren adierazpenen bidez eta eztabaidagai diren langileei dagozkien kontratu gehienak aztertuta, egiaztatuta geratu da zerga-egoitza lurralde erkidean duten langileak direla eta zerbitzuak lurralde erkidean eta atzerrian ematen dituztela. Horrez gain, 29 kontratuetatik 25etan atxikipen-lantokia Madril dela frogatu da.

Arbitraje Batzordeak dagoeneko hainbat ebazpen eman ditu atzerrian lan egin duten langileei dagozkien lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumenari buruz, eta hutsune bat dagoela zehaztu du, atxikipen-lantokira joanda integratu behar dena.

Aurreko kasuan ez bezala, kasu honetan lanak lurralde erkidean eta atzerrian burutzen dira.

Ekonomia Itunak ez du eskumena esleitzeko araurik atzerrian egindako lanetarako, eta, ondorioz, ezta aldi berean lurralde erkidean eta atzerrian egindakoetarako ere.

Hala ere, argi dago atzerrian egindako lanen atxikipenei dagokien hutsunea integratzeko jarraitu behar izan den Ekonomia Itunaren interpretazio-sekuentziaren barruan ez dugula aurkitu kasu honetan atxikipen horiek AFARI egozteko irizpiderik.

Aitzitik, badirudi logikoagoa dela eskumena Estatuari egoztekoa, lanen zati bat lurralde erkidean egiten delako eta langileen atxikipen-lantokia batez ere bertan kokatzen delako, eta, aldi berean, langileek ohiko bizilekua lurralde erkidean dutelako.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea ZAEari dagokiola eztabaidagai izan diren langileen 2009-2011 urteetako ordainarazpen-eskumena.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta ISATISLri jakinaraztea.